



[GITE-IPES elkarteak](#) urtero ematen duen Julio Araluze Bekari esker argitaratutako "Aniztasunaren Gida" ezagutzera eman nahi digu. Bertan aniztasuna bere osotasunean harturik, bestelako jatorri- eta kultura-identitatearen inguruan antolatu diren eragileen erreferentzia biltzeaz gain, beste eragile batzuen ere bildu da: bestelako jatorria edota identitatea duten pertsonen zein kolektiboen egoeraren alde, baita elkarbizitzaren alde lan egiten duten eragileak ere. Hortaz, aniztasunaren alde lan egiten duten 1000 eragileren erreferentzia jasotzen duen gida osatu dute.

GITE\_IPESen ustean, liburua ekarpen interesgarria izan daiteke ikuspegi horrekin lan egiten dutenentzat begira lan-tresna moduan. Baina lan-tresna izateaz gain, berez, ekarpena ere honako hau irudikatzeko: Euskal Herrian aniztasunaren inguruan dagoen errealitate bizia, bai eragileen aldetik baita egiten den lanaren aldetik ere.

Horregatik, hilaren 21ean, goizeko 11:00etan Bilboko La Bolsa auzo-etxean, izango den aurkezpenera gonbidatu gaituzte.